

## 41

## EGITEKO ASMOZ

Asko zabaldu da azken urteetan “partizipio burutua + *asmoz*” egitura:

— *Ama ikusi asmoz joan nintzen hara.*

Autore gehienek, ordea, *-tzeko asmoz, asmoan, asmoarekin...* idatzi dute:

- *Joan zen andik beste gauzarik Erroman ekusi bage bere errira itzultzeko asmoan* (Mendiburu).
- *Kontu andijagaz ibilteko asmoz, duanak alango danzeetara, pekatu loijari gorroto deusala, librau leite pekatuti* (Mogel).
- *Otsoa ta Bildotsa eldu ziran bakoitza bere aldetik Ibai batera ura edateko asmoz* (V. Mogel).
- *Kupiturik sartzen du /gaisoak kolkoan, /ango beroarekin /pizteko asmoan* (Iturriaga).
- *Etxe baten egiteko asmutan* (Duvoisin).
- *Negar santiñak egiñ ondoan asi zan bere ezpataren billan, berearekin Golo josteko asmoz* (Arrue).
- *Izan bere bekatuen damu egiazkoa, bizitza ondotzeko eta Eliza ama sainduak agintzen due-nean konfesatzeko asmoarekin* (Legaz).
- *Arratsalde aldera sartu omen zan basamortu batera, emen arkitzen zan koba zulo batean gaua igarotzeko asmoan* (A. Zavala).
- *Jesusen gorputza igortzitzeko asmotan joan ziran illobia zegoan baratzerara* (Inza).
- *Zarautzerat joan nintzan Patxi Barberoren omenaldian kantatzeko amotan* (Xalbador).
- *Multzo-teoria, batez ere, zelatan dago beti, alde eta aldi oro, linguistika osoaren oinarri bihurtzeko asmotan edo* (Mitxelena).

Hala ere, badira “partizipioa + *asmoz, asmotan*” egitura erabili dutenak ere. Gutxi dira, ordea, goikoeekin alderatuz gero. Hona hemen adibide batzuk:

- *Mun egin gogoz ta asmoz Jesusen llagaren bat* (Añibarro).
- *Ortan jarraitu asmotan bada /lan txarrak eman lezazke* (Basarri).
- *Bueltatu nitzan atzera, kale aldera jetxi asmuian lengo biria artzera* (A. Zavala).

Badirudi bi egituren arteko desberdintasuna, bataren ugaritasuna eta bestearen urritasuna, beste bikote bati loturik azal daitekeela:

- a) *etortzeko asmoa dut*
- b) *etorri asmo dut.*

Izan ere badira zenbait izen —*asmo, gura, gogo, nahi* edo *behar*— *izan (\*edun)* aditzarekin perifrasiya osa dezaketenak eta, horrenbestez, aurretik partizipioa har dezaketenak:

- a) *etorri asmo du*

- b) *etorri gura du*
- c) *etorri gogo du*
- d) *etorri nahi du*
- e) *etorri behar du.*

Aditz perifrasi horien ondoan, "partzipioa + izena" egiturako izen elkartuak ere osa daitezke, hala nola:

- a) *etorri asmoa*
- b) *etorri gura*
- c) *etorri gogoa*
- d) *etorri nahia*
- e) *etorri beharra.*

Aldi berean, perifrasi guztiak ez dira emankortasun-maila berekoak. *Behar nahi* eta *gura* izenekin egunorokoak ditugu; ez, ostera, *gogo* eta *asmo* izenekin. Azken bi hauekin, askoz maizago esan eta idatziko dugu *etortzeko gogoa / asmoa dut*, *etorri gogo / asmo dut* baino (nahiz badiren literaturan halako perifrasiaren lekukotasunak, Lardizabal, Etxaide edo Mitxelenaenak, besteak beste). Eta hortaz, *etorri gogoa* eta *etorri asmoa* ere askoz bakanago aurkituko ditugu, *etortzeko gogoa* edo *etortzeko asmoa* maizenak izanik.

**Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: erabil bitez *egiteko asmoz, joateko asmoz, eztabaidatzeko asmoz*, e.a., tradizioa duten egiturez baliatuz, eta ez *\*joan asmoz, \*egin asmoz, \*eztabaidatu asmoz*.**

(Euskaltzaindiak, Usurbilen, 1995.eko irailaren 29an onartua)